

GIPUZKOA DEEP DEMONSTRATION



**Gipuzkoako elikadura jasangarriaren
misioa**

2022ko maiatza

GIPUZKOA DEEP DEMONSTRATION

Gipuzkoako elikadura jasangarriaren misioa

2022ko maiatza

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| 1. AURREKARIAK | 4 |
| 2. ELIKADURA JASANGARRIAREN GARRANTZIA | 7 |
| 2.1 Gipuzkoako nekazaritzako elikagaien sektorea | 7 |
| 2.2 Biztanleria kontsumitzailea..... | 9 |
| 2.3 Ingurumen krisia | 11 |
| 2.4 Politikak eta estrategiak | 12 |
| 2.5 Digitalizazioa lehiakortasunaren elementu gisa | 19 |
| 2.6 Elikagaien sektorearen erantzuna | 20 |
| 3. GIPUZKOAKO ELIKADURA JASANGARRIAREN MISIOA ERAIKITZEKO PROZESUAN EGINDAKO JARDUERAK | 24 |
| 3.1 Abiapuntuko esparrua ezartzea..... | 25 |
| 3.2 Erronken hasierako ezarpena | 26 |
| 3.3 Agente inplikatuak - Gipuzkoako elikagaien ekosistemarekin erlazionatutako agenteen mapa..... | 28 |
| 3.4 Misioaren prestakuntza prozesu metodologikoa | 30 |
| 3.5 Elikadura jasangarriarekin erlazionatutako ekimenen eta proiektuen diagnostikoa..... | 33 |
| 3.6 Kontraste saioak agenteekin | 40 |
| 4. ELIKADURA JASANGARRIAREN MISIOA: ALTERNATIBAK ETA AMAIERAKO DEFINIZIOA | 42 |
| 4.1 Gipuzkoako elikadura jasangarriaren misioa definitzeko prozesua..... | 42 |
| 4.2 Kontzeptuen xehetasunak | 44 |
| 5. ARLO PROGRAMATIKOEN PROPOSAMENA MISIOA HEDATZEKO | 47 |



1

AURREKARIAK

1. AURREKARIAK

Dokumentu hau GIPUZKOA DEEP DEMONSTRATION ekimenaren esparruan kokatzen da, Gipuzkoako elikadura jasangarriaren misioa eraikitzeko pausu gisa. Helburua da Gipuzkoako elikadura jasangarriaren misioa aurkeztea, egindako ikerketa eta partaidetza prozesuaren emaitza gisa.

Gipuzkoak, Etorkizuna Eraikiz¹, martxan jarrita, bide bat hasi zuen batera identifikatzeko lurraldeko erronkak, eta gogoeta egiteko, gizartea entzuteko eta esperimenezko elementuak txertatzeko.

Etorkizuna Eraikiz ereduak Gipuzkoa desparekotasun² maila txikiak dituen lurraldea izateko ikuspegia du, baita kontzeptualizaziotik, gogoetatik eta gobernantza kolaboratiborako praxitik laguntzeko ikuspegia ere.

Etorkizuna Eraikiz ereduaren barnean, 2020an, esperimenezko prozesu aurreratu bat hasi zen gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren trantsizio jasangarria egiteko, nazioarteko aliatu Climate-KICen eta ELGAren OPSI Gobernantza Aurretiko Behatokiaren laguntzarekin.

Esperimenezko prozesu aurreratu horren erdigunea dira ikuspuntu sistemikoa, esperimenezkoa, askotariko agenteen lankidetzak eta gizarte aldaketak txertatzea.

Trantsizio jasangarria azartzeko premia eta egokiera kontuan hartuta, beste era batera lan egin behar dela azpimarratzen da; izan ere, azken helburua da hainbat agentek egiten dituzten jarduketan inaktuak handitzea, lotura eta jarduketak berriak sortzea, ikaskuntza berriak sortzea esperimenezkoaren bidez eta jasangarritasunaren zeharkako ikuspuntua txertatzea politikan eta praktikan.

2021ean, Climate-KICen laguntzarekin, Aldundiak Etorkizuna Eraikiz ereduaren egindako jarduketan azterketa bat egin zen (ikus 2. irudia), helburua baitzen ekimen horiek sektore ugariaren bidez jasangarritasunari egiten dioten ekarpena aztertzea, eta hobeto lotzea ezagutza garatzeko helburuarekin, erabakiak hartzen dituzten arduradunek erabil ditzaten Green Deal hitzarmeneko xedeak betetzeko.

Gipuzkoak dituen erronken konplexutasuna dela eta, sistemen azterketa bat eta portfolio logika bat aplikatu behar dira, inaktuak biderkatu ditzaketan ekimen interkonektatuekin. Horretarako, ekimen horiek deskarbonizazioaren, klima aldaketarako egokitzapenaren eta kohesio sozialaren ardatzetan oinarritu ziren. Irakurketa horren ondorioz, hainbat jarduketa aukera edo aukera berri sortu dira, eta horien gainean jarduketak berriak eraikiko dira jasangarritasunerako orientazioa indartzeko.

Etorkizuna Eraikiz ereduaren ekimen zorroaren edo portfolioaren azterketatik sortu ziren lehentasunezko arloak hauek izan ziren:

- Elikadura jasangarria eta osasungarria, elikadura kate jasangarria, elikagai eta kontsumo ohitura berriak.

¹ Etorkizuna Eraikiz ereduak. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/etorkizunaeraikiz/eredua>

² Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 aldirako Plan estrategikoa: https://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/12167450/GFA_plan_estrategikoa_2020-2023-labur.pdf/d03dc0fc-0124-88c4-d915-9740b94c5b6d

- Mugikortasun berria, mugikortasunaren paradigma aldatzea, Gipuzkoa izatea eredu digitalagoa, jasangarriagoa eta adimentsuagoa lortzeko trantsiziorako esperimentazio lurraldea
- Eraikingintza jasangarria, materialekin, komunitateko energiarekin negozio aukera berriak.
- Turismo jasangarriaren modu berriak, desplazamendu jasangarriak, turismo eredu berriak.

Horiek guztiak aukera arloak dira, eta horietan jardun behar da sektore arteko eta maila anitzeko misioekin; horretarako, gizarte aldaketa txertatuko da eta ikuspuntu sistemikoarekin lan egingo da.

Misio horien esparrua jasangarritasunaren portfolioa izango da, eta, hartara, Gipuzkoako taldeari (Aldundia eta tokiko agenteak) aukera emango diote 2021ean esperimentatu duten sistemen berrikuntza metodologia aprobeatzeko. Horrela, sakondu ahal izango da lehendik dauden berrikuntza proiektuen eta posizio berrien, errekonozimendu arloen eta berrikuntza ekintzen osaeraren diseinu gogoetatsuan, ikaskuntzako eta transformaziorako sistema bat sortzeko helburuarekin.

Aintzat hartuta Gipuzkoak dituen gaitasunak (arlo horretako agenteak eta ekimenak, lurraldearen kokapena) eta ikuspuntu interkonektatuarekin lan egiteko ahalmena eta aldagai soziala txertatuta, lehen fasean, mugikortasunaren eta elikaduraren arloekin lan egitea proposatzen da.

2



ELIKADURA
JASANGARRIAREN
GARRANTZIA
GIPUZKOAN

2. ELIKADURA JASANGARRIAREN GARRANTZIA

2.1 Gipuzkoako nekazaritzako elikagaien sektorea

Gaur egun, elikadurak eta gastronomiak garrantzi handia dute gizartean, maila ekonomikoan, sozialean, turistikoan eta kulturean, munduko herrialde guztietan, baina, bereziki, EAEn eta, zehazki, Gipuzkoan.

Gipuzkoa munduko eredu bat da gastronomiaren arloan. Michelin izar gehien dituen lurraldea izateaz gain, sukaldaritzaren arloan ezagutzari lotutako industria ehun nabarmena du, eta, kasu batzuetan, dagokien sektoreetan munduko lehen enpresak dira. Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Elikagaien Industrien Erregistroaren arabera, guztira, elikagaien transformazioko 622 industria daude, 674 jarduera egiten dituztenak.³

Gipuzkoako **lehen sektoreak** okupatzen duen ehunekoa txikia bada ere (nekazaritzako lurzorua okupazioa %7koa da, aldiz, basoko zuhaitziena %60koa da), pisu handia du lurraldeko landaguneetan.

Gipuzkoako 88 udalerrietatik 33 landagunekotzat jotzen dira (biztanleriaren %3), eta Gipuzkoan eta EAEn baino zertxobait gehiago hazi da biztanleria horietan. Hala ere, Gipuzkoako 8-10 udalerririk hutsik gelditzeko arriskuan daude. Landa inguruneak, beraz, paper estrategikoa du Gipuzkoan jarduera ekonomikoa sortzeko, jasangarritasunerako, bertako biodibertsitatea eta paisaia, kultura eta idiosinkrasia mantentzeko.

Gipuzkoako nekazaritzaren amaierako produkzioak 130.135,0 mila euroko balioa izan zuen 2020an.⁴ Nekazaritzaren eta arrantzaren BEGd %0,6koa da BPGd-ren gain.⁵ Lurraldeak, nekazaritzako azalerari dagokionez, 615 m²-ko batezbestekoa du biztanle bakoitzeko⁶ eta nekazaritza produktiboa eta jasangarria lantzen den nekazaritzako azaleraren proportzioa %3,87koa da.⁷

Kalitate berezilea duten produktuak nabarmentzen dira: Idiazabal gazta, Getariako txakolina, Ibarra piperrak, Euskal sagardoa, etab. Eusko Labeleko kide dira 200 produktoretik gora eta 258 operadore ekologiko daude errolatuta Gipuzkoan.

Nekazaritza ekologikora bideratutako nekazaritza azalera asko igo da Gipuzkoan; izan ere, 2015ean, 627 hektarea zeuden horretara bideratuta eta, 2020an, 1.326 hektarea.⁸

Eustaten arabera, 2018an, **Gipuzkoako elikagai industriaren** negozio zifraren zenbateko garbia **1.080.317 mila eurokoa** izan zen, eta sektoreak **5.319** langile ditu.

Elikagaien industriak Gipuzkoako **jarduera ekonomiko guztiaren %9** hartzen du.

³ Gipuzkoako gastronomiaren ekosistemaren azterketa <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/etorkizunaeraikiz/-/labe>

⁴ Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Organo Estatistikoa

⁵ Eustat, 2020 aurrerapena


⁶ Donostia Sustapena. Donostia nondik elikatzen den aztertu duen lana.

http://www.fomentosansebastian.eus/images/sectores_emergentes/agroalimentario/nueva_estructura/Resumen_De_donde_se_alimenta_SS.pdf


⁷ Eustat. 2030 Garapen Jasangarrirako Agendaren adierazleak

⁸ Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako ingurumeneko helburuen aurrerapen mailari buruzko hirugarren txostena. 2021eko azaroa


Guztira, **528 establezimendu** zeuden erregistratuta 2020an, Gipuzkoan, eta horietatik nabarmentzen dira **ogiaire eta ehokuntzaren** sektorea (% 27,5), **edarien** sektorea (% 25,0), esnekien industriak (% 18,9), haragia (% 7,6), arrain kontserbak (% 5,9) eta bestelako elikagaiak (% 15,2) ⁹.




Esnekien, edarien eta establezimendu elkartuen industriak "bestelako elikagaiak" kategorian, kopuru aldetik, gehien igo dira azken urteetan, Gipuzkoan.



Enplegu estratuaren arabera, nagusi dira alde handiz, 1-5 langile dituzten establezimenduak, establezimendu guztien % 69,3 baitira.



⁹ Eusko Jaurlaritzak. EAEko elikaduraren eta egurraren balio katearen behatokia. <https://behatoki.eus/estadisticas/industrias-agroalimentarias>



Iturria: Behatoki. EAEko elikaduraren eta egurraren balio katearen behatokia. EJ¹⁰

Elikagaien banaketaren sektoreari dagokionez, Gipuzkoan daude EAEn elikagaietan espezializatutako tokiko txikizkako merkataritza lokal guztien % 35,3 (2.276 lokal; erkidegoan, guztira, dauden 6.447tik)¹¹ eta **jatetxeen eta tabernen** jardueran 3.941 lokal daude; EAEn, guztira daudenen % 31,3.

2.2 Biztanleria kontsumitzailea

Elikagaiak kontsumitzen dituen biztanleriari dagokionez, EAEko datu demografikoek adierazten dute biztanleria zahartzen ari dela pixkanaka. Gipuzkoan, 65 urteko eta hortik gorako 161.618 pertsona bizi dira, lurraldeko biztanleriaren % 22, beraz.¹²

EAEko biztanleria planetako zaharretako bat da. Gipuzkoan, jaiotakoan, bizi itxaropena 83,21 urtekoa da, Eustaten azken datuen arabera; hala ere, dietari lotutako ¹³gaixotasun ez transmitigarri batzuek, esaterako, gaixotasun kardiobaskularrek edo diabetesak Nazio Batuen 3 GJH helburuetatik (bizitza sana bermatzea eta guztien ongizatea sustatzea adin guztietan) urruntzen den heriotza tasa dute. Dietari lotuta, beste adierazle garrantzitsu bat haurren obesitatearena da. 2018an, obesitatea, gehiegizko pisua edo pisu gutxiegi zuten 2-17 urte bitarteko adin txikikoen proportzioa % 33,36koa zen EAEn, Eustaten arabera.

Jasangarritasunaren kasuan, sasoiko eta gertuko produktuen eskaria igo egin da bezero segmentu horren aldetik, betiere produktu horiek bizitza zikloa errespetatzen badute eta era ekologikoan produzitzen badira. Horrez gain, elikagaien hondakinen inguruko kontzientzia handiagoa dago eta elikadura osasunaren elementu nagusitzat eta bizitza osasungarriaren lagungarritzat jotzen da.

¹⁰ <https://behatoki.eus/es/estadisticas/industria-alimentaria-y-madera/>

¹¹ Mercasa. Elikadura Espainian, 2020

¹² Eustat. 2021eko adinekoen panorama estatistikoa Zifrak 2020/01/01ean

¹³ Eustat. Garapen Jasangarriko Agenda 2030en adierazleak. <https://eu.eustat.eus/indicadores/ods.html>

EAEko familiek 10etik 6,7 puntu lortzen dituzte ingurumen inpaktua duten sentsibilizazio eta ohitura mailan, Eustatek landutako datuen arabera. Gipuzkoak du puntuaziorik onena (6,8) globalean. Ura aurrezteko eta hondakinak tratatzeko ohiturak oso zabaldua daude familietan. Ingurumenarekiko kezka handitzeaz gain, azken 5 urteetan asko igo da EAEn (+12,9 portzentajezko puntu) tokiko produktuari (garrantzitsua da Gipuzkoako familien % 80rentzat) eta etiketa ekologikoa duten elikagaien ematen zaien balioa (% 67,2).¹⁴

Ingurumena zaintzeko kontzientziarioa igotzen ari bada ere, Gipuzkoan per capita sortutako hiri hondakinen zifrak Europakoa gainditzen du (2018an 540 kg/bizt. sortu ziren; aldiz, EB-28n, batez beste 488/bizt.).¹⁵

2020an, Gipuzkoako etxe bakoitzak 165 kilo elikagai alferrik galdu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Departamentuaren eta "Enraiza Derechos" GKEn azken azterketaren arabera¹⁶.

Gipuzkoako Aldundiaren azken datuen arabera ¹⁷, 2020an:

- 1,16 kg hiri hondakin sortu ziren biztanleko eta eguneko (1,23 2019an).
- Etxeko hondakinen % 58 gaika bildu zen eta,
- 431.406 kilo etxeko elikagai berreskuratu eta eman ziren "azken minutua" programaren bidez.

Covid-19 birusak aldaketa handiak eragin ditu lehenetsunetan eta erosleek pertzepzioan jasangarritasunari eta osasunari dagokienez.

- Munduko kontsumitzaileen % 73 prest egongo litzateke erosketak aldatzeko, ingurumeneko inpaktua murriztu dadin (Bain & Company).
- Espainiako helduen % 41ek aurrekusi du bizimoduarekin zerikusia duten gaixotasunen (adibidez, diabetesa) arriskua gutxitzeko dieta bat egitea (Mintel).
- Espainiarren % 48k uste du elikagai osasungarriak garestiegiak direla ohikotasunez erosteko (Mintel, 2020ko ekaina).

Pandemiak igo egin du kontsumitzaileek elikadura osasungarriari ematen dioten balioa, baita elikagaien segurtasunari eta kalitateari ematen diotena ere. Elikagaien eta edarien erosketak osagai emozional handia dauka, eta horrek esan nahi du zaporea ez dela negoziagarria.

Joera berriek adierazten dute kontsumitzailearen profila hau dela: etxean denbora gehiago pasatzen du, gehiago jotzen du kanal digitaletara, janari praktikoen irtenbidea nahi du, selektiboagoa da erosketak egitean eta zorrotzagoa da ingurumena babesteari, animalien ongizateari eta marken erantzukizun sozialari dagokionez.

Kontsumitzaileen jokabideak aldatzen jarraituko du eta, horregatik, arintasuna funtsezkoa izango da.

Argi dago pertsona bakoitzaren beharrek eta balio etikoekin bat egiten duen nutrizio pertsonalizatuta bideratutako pausoak eman direla. Zehaztasunezko nutrizioa jomugan dugula

¹⁴ Eustat. Inkesta Ingurumena 2020-Familiak. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0018800/ti_-euska-aeko-etxeak-ingurumen-adierazlearen-oso-nota-onetik-hurbil-daude-2020an/not0018840_e.htmlhttps://www.eustat.eus/elementos/-los-hogares-de-la-ca-de-euskadi-estan-cerca-del-notable-en-el-indicador-de-medio-ambiente-en-2020/not0018840_c.html

¹⁵ Eustat. Egiturazko adierazleak

¹⁶ Gipuzkoako etxebizitzetako elikagaien hondakinei buruzko diagnostikoa <https://zerodespilfarro.elika.eus/kalkulatzen-da-gipuzkoan-165-kilo-elikagai-xahutzen-direla-etxebizitzako-urtero>

¹⁷ Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako ingurumeneko helburuen aurrerapen mailari buruzko hirugarren txostena. 2021eko azaroa

aldatzen ari gara; hala, gure geneen zein mikrobiomaren ezagutza handiagoak eta gure gorputzean gertatzen ari dena denbora errealean monitorizatzeko lagunduko du gure dieta optimizatzen eta gizartean nagusi diren gaixotasun batzuk prebenitzen.

Herritarren osasun eta ongizate maila handiagoak lortzeko esan nahi du elikadura produktuak birformulatzen lan egin behar dela horien nutrizio profila hobetzeko, produktu freskoen, tokiko en, eta sasoiaren kontsumoa sustatu behar dela edo erosteko ahalmen txikiagoa duten kolektiboek dieta orekatu batean beharrezkoak diren elikadura produktuak eskuratzen dituztela bermatu behar dela.

Planetaren etorkizuna dela eta, ingurumenarekiko kezka elikaduraren ikuspuntua aldatzen ari da, eta sumatu daiteke hauen guztien eskari handiago dagoela: " Plant-based" (landare jatorrikoa) produktuak, animalien ongizatearekin konpromisoa duten produktuak, plastikoak sortutako kutsadura, produkzio ekologikoa eta konpromiso sozialak.

2.3 Ingurumen krisia

Elikadura sistemen jasangarritasunari dagokionez, munduko biztanleria eta gaur egungo produkzio, transformazio, merkaturatze eta kontsumo sistemak handitu direnez, baliabide naturalak eta gizakiaren prozesuek sortutako kutsadura xurgatzeko planetak duen gaitasuna agortzeko egoera daukagu. Zehazki, nekazaritzako elikagaien sektoreak sortzen ditu planetan inpakturik handienak eta,aldi berean, lurra pairatzen ari den aldaketek gehien eragiten dioten sektoreetako bat da, batez ere, klima aldaketari dagokionez.

Pertsonen dietak gaur egungoa bezalako elikadura produkzioan oinarritzen jarraitzen badu, ingurumenaren gaineko **ingurumen presioa %50 - % 92** bitarte **igoko** da 2050erako (iturria: Nature). Bereziki, munduko elikadura sistemaren ardura da¹⁸:

- lurreko biodibertsitatearen galeraren % 60
- berotegi gasen isurien % 34,
- lur degradatuen % 33,
- arrain komertzialen erabateko ustiapenaren edo gainustiapenaren % 90 inguru,
- baliabide akuiferoen % 20ren gainustiapena,
- Gainera, elikagaien % 32 bota egiten da.

EAEen, berotegi efektuko gasen emisio guztien % 3 nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako lehen sektorearenak dira, 0,6 Mt CO₂. Sektore honetan, kontuan hartzen dira instalazioetako erregaien kontsumoagatik sortzen diren emisio guztiak (ponpaketak, lehortegiak, arrantza, etab.), isuri guztien % 19 baita. Horrez gain, ganaduak eta nekazaritzako lurzoruen kudeaketak sortutakoa ere kontuan hartzen da, % 81 baita. (iturria: EAEko 2019ko berotegi efektuko gasen inbentarioa). Emisio horiei gehitu behar zaizkie elikagaien industriak, elikagaien garraioak eta etxeek sortutakoak. Azken horiek ez daude bereizita inbentario horretan (Industriaren berotegi efektuko gasen isuriak % 19, garraioa % 47; etxebizitzak % 5)¹⁹.

Ihoberen datuen arabera, Gipuzkoan isurtzen dira berotegi efektuko gas gutxien per capita (8,1 t pertsonako 2019an); aurreko urtearekin alderatuta % 10 jaitsi zen.

¹⁸ https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/pega/eu_def/adjuntos/PEGA_eu.pdf

¹⁹ <https://www.ihobe.eus/publicaciones/inventario-emisiones-gases-efecto-invernadero-pais-vasco-2019-2>

FAOren arabera, **animaliaren proteinan oinarritutako elikadurak** sortzen dituen inpaktuak ez dira **abeltzaintzak** sortutakoa soilik; sektorerako elikagaia **pentsu** ez kaltegarrietan eta kalitatezkoetan oinarrituta sortu behar izateak ere sortzen ditu. Animalien produkzioak elikagaien lehen sektorearen emisioen % 72-78 sortzen duela kalkulatu da.

Era berean, klima aldaketa, desertifikazioa eta gizakiaren jarduerak eragindako ingurumeneko beste ondorio batzuek arrantzako eta abeltzaintzako produkzioari eragiten diote gehien. Zehazki, nekazaritzako errendimendua gutxituta, bereziki tropikoetan, prezioak igota, nutrienteen kalitatea jaitsita eta hornidura kateko eteteen bidez.

Klima aldaketaren seinaleak agerikoak dira. Klima Aldaketari buruzko Gorbenuarteko Panelaren (IPCC) azken txostenen arabera²⁰, Lurraren gainazaleko tenperatura globala, gutxi gorabehera, 1°C igo da industriaurreko garaitik gaur egun arte eta, eritmo horretan jarraituz gero, 1,5era iritsi daiteke 2030ean. Igoera horrek, nahiz eta hutsala dela pentsatu, ondorio ikaragarriak ekar ditzake planeta osoko ekosistema, espezie eta herri askotan.

Aldaketa horrek ingurumenean ondorioak ekartzeaz gain, gizartean ere ekar ditzake. Adibidez, tenperaturaren igoerak eta ozeanoetako mailaren igoerak ondorioak izan ditzake gaixotasunen transmisioan; inguruneak hondatuz gero, herri asko migratzera behartuta egongo lirateke; edo ekosistemak eta haietako lurzorua aldatuz gero, elikaduraren krisia etor daiteke.

2.4 Politikak eta estrategiak

Munduan.

Horregatik, elikadura orain mundu osoko agenda politikoaren lehen postuan dago 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuen bidez (NBE, 2015). Bi helburu zuzenean erlazionatuta daude elikagaiekin: bata da SDG2: "gosearekin amaitzea, elikagaien segurtasuna lortzea eta nutrizioa hobetzea eta jasangarritasuna sustatzea nekazaritzan" eta bestea da SDG14: "era jasangarrian kontserbatzea eta erabiltzea ozeanoak, itsasoak eta itsasoko baliabideak garapen jasangarrirako".

²⁰ IPCCren beroketa globalari buruzko txostenak <https://www.ipcc.ch/sr15/>




Eustat, 2030 Garapen Jasangarrirako Agendaren adierazleak. Gipuzkoako eta EAeko datuak ²¹

Europar.

Europako Itun Berdea²² Europar Batasunak proposatu zuen 2019an, eta Agenda 2030 eta Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Helburuak aplikatzeko Batzordearen estrategiaren parte da. Itunak proposatzen du erronka hori aukera bihurtzea eta azpimarratzen du klima anbizioa igo behar dela.

Europako Itun Berdeak ezarritako ardatzak hauek dira:



1. irudia Europako Itun Berdea

²¹ <https://eu.eustat.eus/indicadores/ods.html>

²² Europako Itun Berdea https://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:b828d165-1c22-11ea-8c1f-01aa75ed71a1.0004.02/DOC_1&format=PDF

Europako Batzordeak 2020ko maiatzean "baserritik mahaira" strategiaren berri eman zuen;²³ bertan, elikagai sistema jasangarrien erronkak azaltzen dira eta pertsona sanoen, gizarte sanoen eta planeta sanoaren arteko lotura onartzen da.

EBren helburua da Europan elikagaiak produzitzeko eta kontsumitzeko modua aldatzea, elikadura sistemen ingurumen arrastoa murrizteko, krisiaren aurrean horien erresilientzia indartzeko (adibidez, COVID-19 pandemiarengatik izandakoa) eta, aldi berean, bermatzeko elikagai osasungarriak eta eskuragarriak izatea gaur egungo biztanleriarentzat eta etorkizuneko belaunaldientzat.

Elikadura sistema jasangarrira aldatzeak ingurumeneko, osasuneko eta gizarteko onurak ekar ditzake, abantaila ekonomikoak eskaini ditzake eta COVID-19aren krisi osteko susperraldiak joera jasangarrian ezartzen gaituela berma dezake.

Europako Batzordeak estrategia horretan ezarritako ibilbide orriko elementu batzuk hauek dira:

- Bermatzea elikaduraren produkzio (nekazaritza, arrantza, akuikultura, abeltzaintza) jasangarria eta arduratsua, ekosistemen mugak gainditu gabe.
- Garatzea gobernantzako eredu berriak landaguneak babesteko eta balioztatzeko, baita hiriko eta landaguneetako errealtateen arteko lotura ere.
- Bermatzea elikagaien segurtasuna
- Sustatzea elikagaien, handizkako eta txikizkako merkataritzaren, ostalaritzaren eta elikagaien zerbitzuen transformazio praktika jasangarriak
- Sustatzea elikagaien kontsumo jasangarria eta dieta osasungarri eta jasangarrietara bideratutako trantsizioa erraztea
- Murriztea elikagaien galera eta hondakinak
- Elikagaien iruzurraren aurka egitea elikagaien hornidura kate osoan zehar.

2013an, Europako Batzordea produktuaren ingurumen arrastoa izeneko ekimena (PEF-Product Environmental Footprint) hasi zen garatzen, bizitza zikloa aztertzeke metodologian oinarrituta. Ekimen honek metodologia bat sustatzea planteatzen du, produktuek ingurumen informazioarekin zerikusia duten eta "produktu jasangarrien merkatu bakarrean" ezinbesteko osagai gisa txertatu beharko luketen Europako hurrengo politika eta legedietan erabiltzeko. Metodologia hori eta aplikatzeko arauak garatuta daude eta elikagaien kateko operadoreek aplikatu ditzakete.

EAEn,

2019ko uztailaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak larrialdi egoera klimatikoa deklaratu zuen²⁴.

Deklarazio horrekin EAEn erreferentzia papera indartu nahi zen berokuntza globalari aurre egiteko konpromisoan eta neurrietan.

²³ Europako Batzordearen "baserritik mahaira" estrategia. https://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:ea0f9f73-9ab2-11ea-9d2d-01aa75ed71a1.0004.02/DOC_1&format=PDF

²⁴ KLIMA 2050 klima aldaketaren estrategia. <https://www.ihobe.eus/publicaciones/estrategia-cambio-climatico-2050-pais-vasco>

Europako Itun Berdearen espiritua EAera ekartzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak Basque Green Deal²⁵ izeneko ardatz nagusiak hauek dira:

- Anbizio klimatikoa, emisioak gutxituta, gauzatu beharreko proposamen bat
- Energia garbia, segurua eta eskuragarria, ezinbesteko faktorea ekonomiaren deskarbonizaziorako
- Ekonomia zirkularra, baliabideen iturri gisa hondakinen balio azpimarratuz
- Efizientzia energetikoa eta eraikingintza jasangarria, enplegua sortzeko motor bat
- Mugikortasun jasangarria, gizarteak desplazatzeko duen modua aldatuz
- Baserritik etxera, jasangarritasuna elikagaien kateko ardatz gisa
- Kutsadurarik eza, ingurune osasungarria lortzeko

“Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030”²⁶ (ZTBP 2030) izeneko plan berria EAeren ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko estrategia da. Orain, 2030 jomuga dela, I+G+b du ardatz euskal ekonomiak bere lehiakortasuna hobetzeko eta hazkunde jasangarriaren bidean aurrera egin dezan.

Plan honek espezializazio adimentsuaren arloak berrikusten ditu ardatz hauetan oinarrituta: 1) teknologikoa-digitala, 2) energetikoa-klimatikoa eta 3) sozial-sanitarioa.

Lehentasun estrategiko hauek finkatzen ditu:

- Industria adimentsua
- Energia garbiagoak
- Osasun pertsonalizatua

Egokiera lurraldeak:

- Elikadura osasungarria eta jasangarria
- Ekoberrikuntza
- Hiri jasangarriak
- EAE sortzailea

Eta zeharkako bultzada ekimen hauek (ardatz estrategikoen artean zeharkako lankidetzak sustatzen duten ekimen kolaboratiboak):

- Zahartze osasungarria
- Mugikortasun elektrikoa
- Ekonomia zirkularra

²⁵ Basque Green Deal <https://www.ihobe.eus/albisteak/basque-green-deal-bidezko-garapen-jasangarrirako-euskal-eredua>

²⁶ ZTBP Euskadi 2030. <https://www.spri.eus/berrikuntza-komunikazioa/ztbp-euskadi-laburpena-euskadi-estrategia/>



EUSKADIKO EKONOMIA ZIRKULARRERAKO ESTRATEGIA 2030²⁷ izeneko estrategiak, zehazki, elikaduraren arloan erronka gisa proposatzen du elikagaien soberakinen prebentzioa, murrizketa, berrerabilpena eta errealizazioa. Horren zergatia da, kalkulatzen dela, EAEn, urtero 380.000 tonatik gora elikagai xahutzen direla, heritar bakoitzeko 182 kg elikagai gutxi gorabehera. Zifra honek ez ditu hartzen soilik etxeetan botatako elikagaiak (EAeko etxeetako elikagaien % 15ek zaborretan amaitzen du), baita elikagaiak produzitzeko eta banatzeko zikloan sortutako gainerako hondakinak ere. Egindako azterketen arabera, hondakinen xahutzea kateko bi puntutan biltzen da batez ere: produkzio prozesuak nekazaritzako elikagaien industrian eta kontsumoa etxeetan eta saltokietan.

EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2024 (PEGA BERRIA) izeneko strategiaren helburua da EAeko elikaduraren eta gastronomiaren 4 ardatzetan lan egitea eta curretatzea: Segurua, osasuntsua, singularra eta jasangarria (soziala, kulturala, ekonomikoa eta ingurumenaren ikuspuntutik).



Gastronomia eta elikadura sustatzea eta garatzea EAeko ekonomiarako sektore estrategiko gisa, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeko, ondare kultural gastronomikoa eta naturaren eta paisaiaren baliabideak kontserbatzeko duen gaitasunagatik. Gastronomiaren eta elikaduraren industria sustatzea, tokiko produktua, kalitatezkoa eta osasungarria, bultzatzen duena, baldin eta jasangarritasuna eta kalitatezko balio turistikoaren proposamen bat sortzea sustatzen badu.

Beste helburu batzuen artean, planteatzen du Elikaduraren eta Gastronomiaren Balio Katearen BEGd % 25 igotzea 2020-2024 aldian, baita lehen sektoreko eta elikagaien eta edariaren industriaren BEGd % 15 igotzea ere 2020-2024 aldian.

Gipuzkoan,

TOKIKO AGENDA 21 ETA JASANGARRITASUNERAKO PLANGINTZEN AGENDAK

27

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/economia_circular/eu_def/adjuntos/EkonomiaZirkularreraoEstrategia2030.pdf

Tokiko jasangarritasunerako udal ekintzaren plangintza Gipuzkoan, batik bat, tokiko Agenda 21 prozesuen bidez garatu da. Agenda horiek ia duela hogeit urte abiarazi ziren Gipuzkoan eta era nabarmenean garatu dira lurraldean; beraz, Gipuzkoako ia udalerri guztiek dute tokiko agenda 21ko prozesu bat indarrean une honetan.

GIPUZKOAKO UDALERRIEN KONPROMISOA GARAPEN JASANGARRIAREKIKO

Jasangarritasunerako Europako Hirien Gutuna –Aalborg gutuna– Gipuzkoako udalerrien % 88k sinatu zuen.

Gipuzkoako udalerrien % 71k EAEko deklarazioa izenekoa sinatu du. 2016an, Bilbon izan zen Hirien eta Herrien Europako 8. Konferentzian adostu zen deklarazio hori. EAEko deklarazioaren bidez, udalerriek konpromisoa hartu dute NBERen Garapen Jasangarriaren Helburuak eta Parisko Klimaren Ituna ezar daitezela babesteko eta transformazio ekintzak ezartzeko eta monitorizatzeko.

ENERGIAREN ESQUALDEKO PLANAK

Mendekotasun energetikoa murriztuko da komunitate mugakide txikien ekintzak elkartuta eta hiru gakorekin: (1) energiaren kontsumoa eta aurrekia, (2) energia sortzea kontsumoarekiko era hurbilean eta (3) herritarrek eskatzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak ematea eta tokiko ekonomiaren ikuspuntutik.

Uste dugu ezinbesteko garrantzia duela tokiko erakundeek (Aldundiak, udalek eta tokiko beste erakunde batzuek) batera lan egitea energiaren arloko ekintza plano bat sustatzen herritarren ikuspuntutik, sektore kontsumitzaile guztiak inplikatur (hiriko eta landaguneetako etxeak, ETEak, saltoki txikiak, zerbitzu publikoak, etab.) Une honetan, 81 udalerri biltzen dituzten Gipuzkoako 8 eskualdek energian dagozkien ekintza planak landuta eduki behar dituzte. Horretarako, ezinbestekoa da lankidetzan aritzea eskualdeko garapen ekonomikorako agentziak, udalak eta herritarren elkarte batzuk.

2050 GIPUZKOAKO JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN ESTRATEGIA



Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartu du klima aldaketaren eta jasangarritasun energetikoaren aurka egiteko, eta erantzuten jarraitu nahi du Parisko Itunean (COP21-2015) tokiko administrazioei, herritarrekin etengabeko harremana izanda, fenomeno klimatikoari aurre egiteko egindako deia, luraren batez besteko tenperaturaren igoera –berokuntza globala– 1,5 °C-ra mugatzeko, industriaurreko mailekiko. Duela gutxi izan den COP26an, ia 200 herrialdek –horien artean Espainiak– adostu zuten Glasgow Akordioak helburu hori bizirik mantentzen du.

Horregatik, 18/2018 Foru Dekretuaren, maiatzaren 29koaren bidez, Klima Aldaketaren Kontra Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050 (Gipuzkoa Klima 2050) onetsi zen, estrategia autonomikoarekin eta estatuko eta Europako xedapenekin bat datorrena. Gipuzkoa Klima 2050ek,

beste ekintza askoren artean, Gipuzkoarako jasangarritasun energetikoko estrategia bat prestatzea du xedetzat, hau da, lurraldeko sektore kontsumitzaile guztietan jasangarritasun energetikoko ekintza bultzatu eta koordinatzeko ibilbide orria.

Dokumentuaren helburu estrategikoen artean hauek daude: energia kontsumoan jatorria duten BEG emisioak murriztea; pobrezia eta zaugarritasun energetikoa prebenitzea eta gipuzkoarrak ahalduntzea, energia sistemaren erdigunean duten rol berria bere gain har dezaten; energia eskaria modu jasangarrian kudeatzeko aurrezpena eta efizientzia energetikoa bultzatzea; Gipuzkoan energiaren lehen mailako ekoizpena areagotu dadila bultzatzea iturri berriztagarrietan oinarritutako autokontsumorako sorkuntza banatuko ereduaren bidez; BEG emisiorik gabeko foru sektore publiko bat sustatzea, eta tokiko energia gobernantza bat sustatzea, multilidergoan oinarritua, tokiko eragile publiko eta pribatu guztien parte hartzearekin eta konpromisoarekin, eta beste organo eskudun batzuekiko koordinazioa xede izanik.

GIPUZKOAKO JASANGARRITASUNAREN BEHATOKIA

Gipuzkoako jasangarritasunaren behatokia da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Gipuzkoako lurralde eta toki jasangarritasunaren alde egiten duen ekintza biltzen duen marka.

Programa aktibo bat garatzen du, udalei eta eskualdeei beren tokiko jasangarritasun prozesuen ezarpenean eta jarraipenean laguntzeko — Tokiko Agenda 21en edo beste planifikazio eta prozesu batzuen bidez egituratuta —, bai eta jasangarritasunaren aldeko tokiko ekintzaren eta foru ekintzaren arteko koherentzia bultzatzeko ere.

Bere jarduerak xedetzat izan du, batez ere, udalei eta eskualdeei laguntzea, tokiko TA21ak formulatzen, ezartzen eta haien jarraipena egiten, eta, horretarako, besteak beste, TA21en bidez planifikatutako ekintzak finantzatu ditu, teknikariak kontratatzen lagundu du eta laguntza teknikoa eman du, tokiko ekintza planen exekuzioa ebaluatzeko.

KLIMA ALDAKETAREN KONTRA BORROKATZEKO GIPUZKOAKO ESTRATEGIA 2050

Nahiz eta KLIMA 2050 estrategia Eusko Jaurlaritzaren zeharkako tresna gisa sortu den, Gipuzkoako Foru Aldundia, zeharka edo zuzenean, lanean ari da klima aldaketaren aurka hainbat politika sektorialen bidez.

AZPIEGITURA BERDEA

Azpiegitura berdea da guneen eta elementuen sare bat. Horiek guztiek klima aldaketa bezalako inpaktuen aurrean erresilientzia hobetzen dute, biodibertsitatea kontserbatzen laguntzen dute eta biztanleriari laguntzen diote, ekosistemen zerbitzuak mantenduz eta hobetuz.

Zerbitzu ekosistemikoak dira pertsonak eta gizarteak ekosistemen funtzionamendutik lortzen dituzten onurak. Adibidez, ur garbia sortzea, lurzorua eratzea, basoek klima erregulatzea, polinizazioa, biodibertsitatea kontserbatzea, etab.

Azpiegitura berdeko sareak garatzea Lurraldeko Antolamendu Gidalerroetan aurreikusita dago, eta EAErako oinarrituko sare bat definitzen du eta irizpideak zehazten ditu, Lurralde Plan Partzialen eta udal hirigintza planen bidez, eskualdeko eta tokiko sareak ezartzeko.

2.5 Digitalizazioa lehiakortasunaren elementu gisa

Hainbat kontzeptu eta teknologia digital oso azkar agertzeak eta garatzeak, gauzen Internetarekin batera, gizartea izugarri aldatzea ekarri du. Tresna berri hauek lan egiteko eta komunikatzeko modu berriak ari dira sortzen eta horrek, era berean, ingurune berri horretara egokitutako negozio eredu berriak sorrarazten ditu.

Prozesuen digitalizazio eta konektibitate egokiak, 4.0 izeneko teknologiekin batera, informazio objektiboa trukatzeko aukera ematen du balio katean zehar, balio kate konektatu eta adimendunaren kontzeptu berri bat ahalbidetuz.

Zenbait sektorek, adibidez manufakturaren sektoreak edo farmazeutikoak, teknologia hauek integratu dituzte. Hala ere, elikagaien sektorea, digitalizatu aurreko egoeran dago, neurri handi batean, elikagaien matrizeen konplexutasunagatik eta heterogeneotasunagatik, baita prozesu askok artisau osagai bat dutelako eta hori produktuen kalitate pertzepzioarekin erlazionatzen delako ere. Zehazki, elikagaien sektoreko EAEko balio kateak gainditu beharreko erronka komunak ditu gaur egun²⁸:

Balio kate osoa heldutasun digitalera bideratzea: ekipamendu eta azpiegitura askok urte asko dituzte, kasu askotan, ez dute aukerarik ematen erraz edo berehala digitalizatzeko.

Batera lan egitea konektibitatearen, komunikazioaren eta informazioaren alde, hala enpresetan nola gainerako kate osoan, trazabilitatea eta informazioaren erabilera adimentsua hobetzeko.

Tresnak izatea datuak hartzeko (parametro kritikoen edo interesgarrien monitorizazioa) eta horien prozesuei edo eragiketei buruzko informazioa objektiboa lortzeko, eta are gutxiago irizpide objektibo estandarizatuetan edo homogeneizatuetan oinarrituta erabakiak hartzen laguntzea.

Desoreka murriztea digitalizazioari dagokionez balio kate osoan zehar: Gaur egun, kontsumitzailearentzat aplikazio eta tresna ugari daude, baina digitalizazio maila txikiagoa da nekazaritzako elikagaien kateko gainerako mailetan.

4.0. tresnen erabilera, gaitasunak eta inpaktua sustatzea. Teknologia berrien aukera hain irekia da, baina horiek egiaztatzeko eta frogatzeko gunea txikia denez, sektorearentzat zaila dela bere beharretara gehien egokitzen direnak hautatzea.

Teknologia digitalak eta 4.0 era adimentsuan, mailakatuan eta adostuan ezarriz gero (ikus grafikoa), besteak beste, informazioa erabili eta trukatu ahal izango da, barnean, prozesuen artean eta elikagaien kateko agenteen artean (baita administrazioekin, erakundeekin eta herritarrekin ere). Horrela, erabakiak denbora errealean hartu ahal izango dira eta prozesu zein produktu bakoitza izan daitezkeen aldatetara aldatu ahal izango da, modu malguagoan, zehatzagoan eta efizienteagoan; hartara, balio katearen etekina maximizatuko da. Era berean, bezeroen eta kontsumitzaileen portaerari eta beharrei aurre hartu ahal izango zaie. Horrela, produktioa eskariaren araberrako eredu batera egokituz, elikagaien hondakinak murriztuz eta bezeroen zein kontsumitzaileen gogobetetzea areagotuz. Azken finean, horrek guztiak hau ekarriko du: kostuak gutxitzea (produktioarena, logistikarena eta kalitatearen kudeaketarena) eta

²⁸ <https://www.azti.es/aztinnova/guia/diagnostico-y-hoja-de-ruta-4-0-de-la-industria-alimentaria-de-euskadi/>

denbora murriztea eragiketetan; salmenta eta banaketa optimizatzea; kontsumitzaileari hobeto erantzun ahal izatea; lan egiteko ingurune malguagoak eta atseginoagoak izatea; lehengaien (arrantza, nekazaritza, abeltzaintza, akuikultura), materialen, uraren eta energiaren erabilera efizienteagoa izatea; kalitatea eta animalia-ongizatea denbora errealean eta prediktiboan etengabe kontrolatzea; eta automatizazioa areagotzea elikagaien eta lanaren kalitatea eta segurtasuna hobetzeko, baita pertsonaren akatsak murrizteko ere.



Grafikoa: teknologia digitalak eta 4.0

2.6 Elikagaien sektorearen erantzuna

Azken urtean, merkatu nazionalean izan diren elikagai eta edari berrien merkaturatzea aztertuta,²⁹ ikus dezakegu joera horiek baieztatzen direla: jasangarritasunak protagonismo berezia du orain, baita gutxiago prozesatutako, landare jatorriko (Plant-based) eta propietate funtzionaleko (immunitatea hobetzea, esaterako) formulazioek ere. Asko igo dira fabrikatzaileari eskatzen zaizkion claim edo alegazio batzuk, adibidez: Karbono neutrala (+% 333,3), antioxidatzailea (+% 200), funtzionala-kardiobaskularra (+% 100) edo funtzionala – erlaxatzailea edo loa hobetzea (+% 100).

2020 azaroa-2021 urria bitarteko aldian, "etikoa & ekologikoa" ezaugarriekin lotutako alegazioak izan dira nagusi (% 38,1) maila nazionalean merkaturatutako produktu berrietan. Horren atzetik daude, % 37,5ekin, "egokia hauentzat" baieztapena (agente alergeniko gutxikoa/gabe, glutenik gabe, beganoa/animalia osagairik gabe, etab.) eta, % 28,9ekin, "Naturala" (organikoa, gehigarri/kontserbagarri gabe, etab.) ezaugarriarekin lotutako baieztapena. Jasangarritasunaren

²⁹ MINTEL GNPD. Mundu mailako elikagaien eta edarien berrikuntza eta merkaturatzeari buruzko datu basea

deklarazioei dagokienez hauek izan dira nagusi: ingurumena errespetatzen duen ontzia, birziklagarria, habitat/baliabide jasangarria eta ingurumena errespetatzen duen produktua.

Halaber, ikusi ahal izan da “*upcycling*”, fenomenoari lotutako produktu berriak merkaturatu direla. Elikagaien balio kateko soberakinak edo hondakinak aprobetxatzen dituzte produktu horiek, elikagaiak alferrik galtzea ekidinez. Nitxo bat badago ere, handitzen ari da.

Planteatutako ingurumenaren eta ingurumen jasangarritasunaren, gizartearen eta ekonomiaren erronkei irtenbidea emateko eta erantzuteko, nekazaritzako elikagaien sektoreak produzitzeko eta kontsumitzeko eredu jasangarri berriak proposatzen ditu, honetan oinarrituta: 1) Hornikuntza jasangarria eta tokikoa; 2) elikagaien eta instalazioen ekodiseinua; 3) produkzio efizientea eta jasangarria; 4) elikagai eta material frakzioak berreskuratzea eta aprobetxatzea; 5) jasangarritasunaren ebaluazio eta komunikazio sistemak; 6) Jasangarritasun soziala.

Hornikuntza jasangarriaz ari garenean, lehengaiak ahalik eta tokikoenak erabiltzen dituzten elikagaien elaborazioaz ari gara. Hau da, modu arduratsu eta jasangarrian ekoiztu diren lehengaiak dira, baliabideen gainustiapena edo ekosistemen degradazioa saihestuz. Prozesu honek eskatzen du hornidura jasangarriaren politikak egitea eta argitaratzea, baita trazabilitate osoaren eta gardenaren sistemak garatzea ere, kontsumitzaileari konfiantza eskaintzeko helburuarekin. Tokiko lehengaiak eta jasangarriez hornitzeko ahalegin horrek zuzenean sustatuko du Gipuzkoako lehen sektorearen jasangarritasuna, baita hain beharrezkoak diren tokiko salerosketa akordioak egitea ere.

Elikagaien eta instalazioen ekodiseinuaren definizioa hau izan daiteke: produktuen bizitza ziklo osoan ingurumena hobetzeko egiten diren ekintzak (besteak beste, lehengaien erauzketa edo produkzio primarioa, elikagaien bizitza amaiera, transformazioa, garraioa eta merkaturatzea), diseinuaren hasierako etapan zehazten direnak; horrela, erabakiak har daitezke fabrikazio planta batean inbertitu baino lehen edo elikagai bat nolakoa izango den erabaki baino lehen. Elikagai berrien edo gaur egungoak hobetzeko diseinuaren prozesuan, alderdi hauek izan behar dira kontuan: etika eta ingurumena, elikagaien segurtasuna eta kaltegabetasuna, erosotasuna, nutrizio kalitatea, kontsumitzailearen pertzepzioa eta lehentasuna (sentsorialitatea), produkzio kostuak, ontziratze mota eta formatua.

Nekazaritzako elikagaien kateko enpresek ingurumenean egiten duten inpaktua murrizteko eta kostuak optimizatzeko aplikatu behar duten estrategia nagusietako bat da produkzio plan garbi eta ekoefiziente bat ezartzea, horiek baliabide naturalen erabilera murrizteko baitira: ura, energia, lehengaiak eta osagarriak, ontziak eta enbalajeak; baita lerma, errefus, hondakin, isuri eta emisio gutxiago sortzeko ere. Orain arte, elikagaien enpresa askok plan hauek ezarri dituzte, baina gaur egun oraindik enpresen ehuneko handi batek ez ditu erabat aplikatu teknika hauek edo asko hobetu daiteke. Baliabide naturalen erabilera ultra-efizientea nekazaritzako elikagaien sektoreko lehiakortasun faktore garrantzitsu bihurtu da. Materia horiek gero eta eskasagoak izango dira eta/edo eskatzen den kalitatearekin lortzea gehiago kostako da; beraz, etorkizun hurbil batean, ez da zentzugabea izango aurreikustea baliabide horiek ondoen erabiltzen dituzten enpresek beren alde izango dutela biziraupenerako faktore garrantzitsu bat. Aipatu behar da digitalizazioak eta 4.0 irtenbideen aplikazioak paper oso garrantzitsua dutela ekoefizientzia hobetzerako orduan.

Garrantzitsua den beste alderdi bat da elikagaien katean zehar azpiproduktuan edo hondakinean sortzen diren elikagai frakzioak ahalik eta gehien berreskuratzea eta baliaraztea. Aprobetxatzen ez diren elikagai frakzio horiek landareen eta animalien lehengaitzat jo daitezke, eta, hasiera batean, nutrizio potentzial eta elikadura kalitate egokiak dituzte. Horiek era fidagarrian eta seguruan aprobetxatzeko, beharrezkoak diren azpiegiturak sortu behar dira eta elikagaien balio

kate berriak garatzeko zailtasun teknikoak gainditu behar dira, osagai berriak eta elikagai produktu berriak (pertsonek eta/edo animalien elikadura) produzituz, seguruak eta jasangarriak izango direnak, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ekonomia zirkularraren jarduera berriak dira eta zuzenean murriztuko dira elikagaien galera eta hondakinak.

Elikagaien erosketa arduratsuari dagokionez, kontsumitzaileei metodo sendo bat eman behar zaie, informatzeko eta kontsumitzaileak kontsumo eredu jasangarriagoak hartzera motibatuzko gai izango dena eta, aldi berean, nekazaritzako elikagaien enpresei bultzatza behar zaie hornidura kate osoan ingurumeneko inpaktuak gutxitzera. Metodo horrek sendoa izan behar du, adostua eta harmonizatua, ikusteko eta ulertzeko erraza, kontsumitzailea gehiago nahas ez dadin.

Era berean, jasangarritasun soziala jarduketan guztietan integratzea nahitaezkoa da gaur egungo gizartean: elikagaien ekosistema berriek askatasunaren eta giza eskubideen erabilera arduratsua sustatu behar dute; biztanlerian bizitza maila egokia mantendu behar da; hezkuntzako, trebakuntzako eta kontzientziatzeko maila egokia mantendu behar da; generoen arteko berdintasuna bermatu behar da; sorkuntza, dibertsitate eta integrazio kulturala erraztu behar da; pertsonen eta komunitateen arteko elkartasuna sustatu behar da, eta lan duina, seguru eta egonkorra bermatu behar da.

3

MISIOA ERAIKITZEKO PROZESUAN EGINDAKO JARDUERAK

3. GIPUZKOAKO ELIKADURA JASANGARRIAREN MISIOA ERAIKITZEKO PROZESUAN EGINDAKO JARDUERAK

Gaur egungo testuinguruak duen **konplexutasunari**³⁰ buruzko adostasuna handia da. Errealitateak eta inguruneak erronkak aurkezten dizkigu eta horiei aurre egiteko, irtenbide berriak eta askotarikoak sortu behar ditugu. Bestalde, harremanak gero eta multilateralagoak dira, gure artean gero eta konektatuago gaude. Ez daukagu erantzunak eta pentsatu egin behar dugu, galderei erantzutean batera esperimintatu behar dugu. Azken finean, **eskala handiko berrikuntzaz ari gara**.

Testuingurua ezartzeko eta hainbat mailatan eta hainbat ikuspuntutatik elikadura jasangarriak duen garrantzia ezartzeko lanean oinarrituta, eskala handiko berrikuntza mekanismo bat garatu da misio bat sortzeko, **jasangarritasunaren portfolioaren parte gisa**, sistemen berrikuntza metodologia erabiliz, lortu nahi dugun transformazioa errealitate bihurtzeko, eta Etorbizuna Eraikiz ereduaren ikuspegi aberastuz jasangarritasunaren ikuspuntuarekin.

Misioetara bideratutako berrikuntzaren helburua da gizartearen erronkei irtenbidea ematea, baita hazkunde ekonomikoa, ongizatea eta teknologiaren zeharkako efektuak sortzea ere. Berrikuntza modu horrek eskatzen du sektoreen, agentzien eta diziplinen arteko lankidetzak berriak gauzatea, baita erronka horiei irtenbidea emateko batuko diren teknologiei laguntzea ere.

Horretarako, hau egin behar da:

- Erronka handiei sektore arteko misioen bidez konponbidea eman
- Industriako eta ikerketako estrategiak misio horiekin eta jasangarritasunaren portfolioarekin lotu, lankidetzako mekanismo berrien bidez.
- Misio ugari sustatu arazo sistemikoei eta sozialei konponbidea aurkitzeko.
- Sektore publikoan lan egiteko modu berriak eta gaitasun berriak sustatu.
- Sistematikoki lagundu zientziaren, teknologiaren eta artearen garapenari.
- Gaitasun sektorialak eta xurgatzeko gaitasuna sustatu
- Sektore publikoaren gaitasunetan inbertitu eta erakunde guztietan lan egin.
- Herritarrekin konektatu, aldaketa soziala eta portaerarena mobilizatu.
- Inbertsio modu berriak atxiki eta erakarri.

Misio hauek portfolio ikuspegi baten barnean funtsezko jarduketara arlo gisa sartuz gero, balio erantsiko elementu hauek izango ditu:

❖ **Erronka handien definizioa sustatzen du, eta horiei nahita erantzun behar zaie sektore anitzetan.**

Erronka horiek modu zatituan definitu beharrean, erantzun partzialei eta sektorialeiei bidea eman diezaiekeena, ikuspegi poliedrikoa bultzatzen du, hainbat eremutatik ikuspegiak emateko eta aberasteko.

❖ **Ekosistemaren ikuspegi txertatzen du.**

Ekosistemaren ikuspuntutik lan egiten da, hainbat agenteren, loturen eta ekimenen portafolioaren ikuspegiarekin.

❖ **Ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen alderdiak txertatzen ditu, garapen jasangarria sustatuz.**

Hala erronkaren definizioan nola balizko irtenbideen garapenean ingurumena-ekonomia-gizartea ardatz hirukoitzarekin lan egiten da, erabaki hartzeetan berrikuntza aintzat hartuz.

❖ **Lankidetzaren publiko-pribatuaren moduetan sakontzen du.**

Agenteen arteko gune, lotura eta sinergia berriak, elkarlanean aritzeko modu berriak, ikaskuntza zein adimen kolektiboaren aukera berriak sortzen dira.

❖ **Agente publiko eta pribatuaren arteko gaitasun berriak garatzen ditu.**

Besteak beste, laguntzen du gaitasun berriak garatzen, ikuspegi berriak txertatzen, esperimentazio handiagoa izaten eta lankidetzaren handiagoa izaten.

❖ **Aldaketa soziala aldaketa jasangarria txertatzen du.**

Prozesuan aldagai soziala txertatzen du, gizartean dauden aldaketarako jarrerak edo aukerak proposatzen ditu planteatutako erronkaren aurrean, baita herritarrekin lankidetzaren areagotzeko moduak ere.

Gipuzkoako ELIKADURA JASANGARRIAREN misioa eraikitzeko prozesuan jardura hauek egin dira, jarduketaren eskema honi jarraiki:



3.1 Abiapuntuko esparrua ezartzea

Hasieran, hainbat mailatako testuinguru mapa bat ezarri behar izan da, Gipuzkoan elikadura jasangarriaren misioak erantzun beharreko erreak nagusiak ezarri ahal izateko. Landutako alderdiak hauek izan dira (ikusitako X atalean):

- Politikak eta estrategiak
- Elikagaien ekosistemaren diagnostikoa /mapa
- Biztanleria kontsumitzailearen bilakaera
- Ingurumen krisia

- Gobernuko erakundeen erantzuna
- Digitalizazioa lehiakortasunaren elementu gisa
- Elikagaien sektorearen erantzuna

3.2 Erronken hasierako ezarpena

Gipuzkoako elikadura ekosistemari buruz egindako diagnostiko eta testuinguru lan osoan oinarrituta, hasierako erronka ugari ezarri dira, eta, aurreikuspenen arabera, ezarri den misioak erronka horiei modu interkonektatuan erantzun behar die, era multisektorialean, herritarren eta inplikaturako eragile publiko-pribatuen parte hartze aktiboarekin. Hasierako erronkak hauek dira:

Lurralde orekaren erronkak

- **Elikagaien hondakinak murriztea** elikagaien kate osoan eta azpiproduktuak eta gutxiegi erabiltzen diren elikagaien frakzioak ahalik eta gehien erabiltzea. **Herritarrek kontzientziaztea** etxean elikagaiak hobeto aprobetxatzeko.
- Ekosistemen eta landa komunitateen **erresilientzia** areagotzea.
- **Ehuna indartzea** elikagaien edo transformazioaren industrian.
- Garrantzitsutzat jotzea eta **sustatzea tokiko eta hurbileko produktua**. Sustatzea **ezinbestean jasangarriak** diren tokiko produktuak eta merkataritza kate laburrak.
- **Balio kate berriak eta negozio eredu zirkularrak** sortzea, lehengai eta osagari jasangarriagoak eta bigarren mailako lehengaietatik datozenak erabiltzeko aukera ematen dutenak.

Erronka sozialak

- Elikagaien kateen **jasangarritasun soziala** ziurtatzea, kontuan izanda kateko **langileak eta agenteak**, gizartea eta **tokiko komunitateak**, kolektibo **babesgabeak**, **kontsumitzaileak** eta aukeren **berdintasuna**.
- Sustatzea **kontsumo arduratsua eta jasangarria** sistema efizienteen bidez, elikagaien informazio / **komunikazio argi eta ulergarriaren** bidez, Europako **estandar sendoetan, egiazkoetan, egiaztagarrietan eta harmonizatuetan** oinarrituta.
- Areagotzea Gipuzkoarren **ongizate** soziala eta bizitza kalitatea **elikadura osasungarriaren eta jasangarriaren** bidez.
- Ekitea **nutrizio ekitateari** eta **dieta osasungarrien** sustapenari bizimoduari lotutako **gaixotasunen aurka** egiteko (obesitatea, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, etab.) estrategia gisa.
- Elikagai **sanoagoak, naturalagoak eta jasangarriagoak** produzitzea, eta, aldi berean, herritarrek **lortzeko eta eskuratzeko** modukoak izatea.
- **Gardentasuna bermatzea** tokiko produktuen **trazabilitatean**, kontsumitzaileek **erosketa informatuagoa eta arduratsuagoa** egiteko tresna hobek izan ditzaten.

Lankidetzaren publiko-privatuaren erronkak

